I

Heriotza-mehatxua bota behar bizitzari eusteko.

Bai neuri bai familiako edonori zerbait gertatuz gero, hi-ta-hi-ta-hi jausiko zarete. Agindua emana zagok eta enkargua aurrez ordaindua, badaezpada.

Gero, atzera begiratu gabe irten zela Herriko Tabernatik.

Neguriko lehendakari baten plantaz.

Mikelek hamaika urte zeuzkanean entzun zuen aitonaren historia aitaren ahotik, elkarrekin Baqueirara eskiatzera zihoazela. ETAren behin betiko su etena gertatu berria zen eta egun haietan Mikelek hainbatetan galdetu zion aitari ETAri buruz. Amaren aldetiko aitonaren historia aitarengandik jaso zuenean, Mikelek zerbait somatu zuen gorputz barrenean, aitak kontatu berria bere baitan toki propioa hartzen bezala.

Amari ezer ez esateko eskatu zion aitak eta jarraian Mikelek galdetu zuen ea amak ez ote zekien aitonari gertatutakoa. Une batez aitak ez zion ezer erantzun semeari. Badaki, horixe badakiela, baina ez zaio gustatzen horretaz hitz egitea, esan zion gero. Hobe momentuz gure artean gordetzea kontatu dizudana. Zuk pentsa aitona oso tipo ausarta izan zela eta hitz egin dezagun futbolaz orain.

Aitona handik hamabi urtera hil zen, ia laurogeita hamar zeuzkala. Hiletan Mikelek hitz batzuk bota zituen Bosgarren Parrokiako mikrofonotik, entzule euskaldunen artean barreak bizpahiru aldiz eraginez. Aitonak esaten zuela aterkiak bere lantegikoak zirela eta gainerakoak «etorkiak».

Meza ostean Mikeli aitonaren herriko hainbat gizon-emakume aurkeztu zizkioten, Bilbora hiletara joanikoak. Denak euskaraz mintzatu zitzaizkion eta Mikelek ez zuen ondo ulertu esan zioten gehiena.

Gainera buruan txiste posibleak zerabiltzan agure haiei fijo begiratu eta doluminak emateko berari hain jator hitz egiten zioten bitartean. Aitari aspaldian entzundako ateraldiak abiapuntu.

Beraz, zeu ere sortua zaitugu Autocomplacencia de las Armas herri ederrean…

Gauean etxean amarekin bakarrik gelditu zirenean Mikelek galdetu zion posible ikusten eta ondo hartuko ote zuen monologo bat eginez gero aitonaren gainean.

Monologo umoristiko bat?

Mikelen ama berrogeita hamabost urteko emakume zaharkitua zen. Sorterrian hamalau bete arte bizi izan zen eta gero Bilbon. Mikelen gogoan amak ez zuen ia inoiz hitz egiten sorterriari buruz eta berak ere ez zion ia inoiz galdetzen. Nahiz eta amarengan sorterriarekiko lehen ez zegoen zerbait argitsuago berriki agertua zen aitagandik banandu zenetik.

Zer kontatzeko; dena kontatzeko?

Ez dakit, ama, zerbait kontatzeko; zerbait barregarria norbait barregarri uzteko, umorea beti norbait barregarri uzteko egiten delako.

Barregarri uzten ari zaren horrek barre egiten badu, erabat asmatu duzun seinale.

Amak esan zion kontuz ibiltzeko, ez zela denbora nahikorik igaro, Marxek gaztigatu bezala, dramatik komediara pasatzeko. Hobe zeukala umorea bere belaunaldiaz egitea, denon hobe beharrez.

Gau hartan Mikelek ametsetan egin zuen bera zela Herriko Tabernara sartzen zena. Aitonari buruzko monologoa bertan egitera zihoan, berarekin ikastolan ibilitako zenbait ikaskideren aurrean. Ametsean Mikelek pistola bat ateratzen zuen eta ikaskide-ohien kontra disparatu. Batzuk hil egiten zituen eta ametsa orduan bukatzen zen, artean bera esnatu gabe.

Biharamunean, ETPren (Euskadiko Telebista Publikoaren) egoitza nagusiko kafe makinen aurrean topo egin zuen, ohi bezala, bere

antzera astero euskarazko umore saioan parte hartzen zuen Donostiako neska batekin, Olaia izenekoa bera.

Bost minutuko bakarrizketa bana egiten zuten Mikelek eta Olaiak gai librean. Bi agerraldiko kasting batean aukeratu zituzten eta lagunlagun bilakatu ziren hilabete gutxiren buruan.

Oso gozagarria zitzaien saioa grabatu aurreko tartea, kafe-makinen gela zabalean. Celebritiak gauza normalak egiten, astero antzeko zozokeriak elkarri xuxurlatu eta barre egiten zuten gustura, inguruan ziren telebistako kazetari eta administratiboen aurrean nabarmen agertu nahian eta, aldi berean, entzungo ote zieten beldurrez.

Olaia garaia eta argala zen, ile hori luzea zeraman eta korear estilora jantzita zegoen: gona labur arrosa eta top estu urdin argia, zetazkoak ziruditen kiribilduekin. Zangoak eta besaburuak airean zituen eta burua erdi estalia Bulgari marka letra larriz ageri zuen kapela batez.

Olaiak beti hitz egiten zuen euskaraz erdarara apenas pasatu gabe. Egun horretarako bere monologoan Bilboko tranbia gidari donostiar baten ikuspegia hartu behar zuela esan zion Mikeli. Gidatu ahala nor bai harrapatu nor ez erabakiz doana. Bilbotarrak gorroto zituen Olaiak harrotasun sinpatikoa ezinago faltsua iruditzen zitzaiolako eta nahiago zuen donostiarren harrokeria antipatikoa, sintzeroagoa iruditzen zitzaiolako.

À la Parisienne…

Mikeli gogora etorri zitzaion aita, zeinagandik, aitortu zion Olaiari, heredatu baitzuen bis komikoa.

Zu bezain sinpatikoa da, ezta?

Egun hartarako Mikelek euskal arkeologian izaniko hainbat fake izan behar zituen hizpide monologoan. Revilla jaun txit gorenak ordaintzen al die gure arkeologo maiteei? Euskaldunok Euskal Herrian betidanik existitu izan garela frogatuko lukeen zerbait aztarnategi batean aurkitzen duten bakoitzean, handik urtebetera, ordea, zera deskubrituko da aztarnategi berean: erdi santanderinoak garela.

Mikelek eta Olaiak parte hartzen zuten telebistako umore saioa desagertzeko arriskuan zegoen audientzia eskasak zirela kausa. Saioko gidaria umoregile beterano bat zen eta Mikelek oso gustuko zuen berarekin hitz egitea euskarazko telebistaren eboluzioari buruz.

Zure aitaren alderdikoek ez zuten ulertu trinkotua ez dagoen hizkuntza batean aritzea, nola esan, markagailuan diferentzia handiz galtzen zoazela jokatzen hastea bezalakoa dela.

Mikelek oso aintzat hartzen zituen umoregile beteranoaren aipu eta metaforak.

Euskaldunok pilotariak gara, euskara pilota eta Euskal Herria frontoia.

Umoregile beteranoak uste zuen euskaltzaleen eginkizuna jokoa «hutsik ez egiteko moduan» antolatzea zela eta horretarako zilegia ez ezik beharrezkoa jotzen zuen pilotariak, pilota eta frontoia bera manipulatzea.

Askotan pilotariak baldarrak izaten direlako, pilota gogorra eta frontoia irregularra.

Jokoan hutsik egin gabe euskaraz txiste soil bat kontatzeko arestiko guztia guztiz kontutan izan behar baldin bada, esaten zion umoregile beteranoak Mikeli, egin kontu telebista oso bat zuzentzeko.

Mikelek momentuan bertan ulertu zuela pentsatu arren, gero etxean gehiago kostatzen zitzaion bisualizatzea telebistako saioetan nola aplika zitekeen umoregile beteranoak esandakoa.

Nola? Mesedez, Mikel, hamaika modutan!

Norena da erantzukizuna «arlote» hitza Euskal Herriko gazteek hitzetik hortzera ez erabiltzearena?

Txikitan «kankailu» esaten genuen moduan; horra beste hitz zoragarriki adierazkor bat, inon agertzen ez dena eta non-nahi agertu beharko lukeena.

Zer egin dezakeen telebistak?

Saioak sortu, batez ere fikziozkoak, ezkutuan halako helburuekin: bultzatu nahi diren hitz edo esamolde jakinak jendartean zabaltzeko.

Modan jartzeko.

Berrogei urte alperrik galduta!

Mikelek modu pertsonalean hartzen zituen umoregile beteranoak botatako purrustadak, alde batetik aita jeltzalea zuelako eta bestalde bere euskara nahiko mugatua zelako.

Bilbo aldeko ikastola pribatu garesti batean ikasia zen eta bertan jasotako euskarari gurasoek emandakoa gehitu beharra zegoen, beraz bilbotar belaunaldikideen batez bestekotik gora zegoen euskara mailan, baina azpitik umoregile beteranoa bezala gipuzkoar gune euskaldun zaharretan sortutako askorenarekin alderatuz gero.

Halere, ez zen partaide intimitatean erdaraz diharduten euskaldunen zerrenda amaigabean.

Izan ere, zenbateraino ez ote zen euskara maila-falta gero eta larriagoa saioaren audientzia motelaren arrazoi nagusia?

Antzeratsu jarraituz gero, motel, hiltzera goazak!

Saioa grabatu eta gero, umoregile beteranoak esan zien bilera zeukala zuzendaritzarekin eta Mikel eta Olaia elkarrekin irten ziren telebistaren egoitzatik. Antzeko adina zuten eta haien artean hobeto konpontzen ziren saioko beste monologista nagusiago batzuekin baino. Arrazoia, haietariko hainbatek erdarara jotzeko zuten ohitura, Olaia aztoratu eta bere onetik ateratzen zuena.

Hipokrita halakoak, esaten zion Mikeli eta baietz beronek, oso itsusia zela bizimodua euskarari esker lortzea eta gero eguneroko bizitzan euskararekin ia beti amore ematea hain azkar, espainolez errazago eta oparoago moldatzen zirelako.

Nos han jodido ba; denon antzera!

Mikel eta Olaia konplize sentitzen ziren hiztun modura. Bazekiten batak ez zuela bestea pedantetzat joko elkarrizketa normal batera euskarazko hitz jasoak nahiz esamolde dialektal jatorrak, nonahikoak, ekarriz gero.

Are, antzinako testu sakratuetako esaldi fetitxeak: ezin diat Gasteizen paratu!